



# EUSKAL ASTEA

2018ko apirilaren  
15etik 22ra arte

## APIRILAK 15, IGANDEA

**10:30 Herri Martxa:** Gallarta-Las Carreras-Sanfuentes-Gallarta euskara, kirola eta osasuna bateratzeko. Dorsal banaketa 10.00etan izango da Alberto Ezkurdia Parkean.

## APIRILAK 16, ASTELEHENA

**09:50 Iban Garateren hitzaldia** Dolores Ibarruri Institutuan Nahi Dudalako kanpainaren gainean hitz egiteko.

## APIRILAK 17, ASTEARTEA

**10:30** Dolores Ibarruriko hainbat ikaslek, euskaltegiko taldeek eta hainbat berbalagunek batera **mintzodromoa** egingo dute Eusko Gudariak Plazan. **Ibon Larrinaga** boxealaria eta **Unai Aranguren** errugbilaria gurekin izango ditugu mintzodromoa dinamizatzen. Eguraldi txarra egitekotan Dolores Ibarruri Institutuko gimnasioan egingo genuke.

**19:45 Gotzon Barandiaran eta Rafa Rueda idazleekin saioa** Las Carrerasko jubilatuen etxean, Meatzaldeko Irakurzale Klubak antolatuta.

## APIRILAK 18, ASTEAZKENA

**16:45 Zer da Euskaraldia? Nork hartu ahal du parte?** Aurten modan jarriko dugun ekimena duzu eta zertan den jakiteko **“Porrotx”** izango dugu gure artean Las Carrerasko jubilatuen etxean. Ez galdu aukera 16 urtetik gorakoa bazara! Izena emateko deitu udaleko Euskara Zerbitzura apirilaren 13a baino lehen.

**18:00 Pirritx, Porrotx eta Marimotos pailazoak “Borobilean”** saioarekin Las Carrerasko frontoian. Sarrerak eskuragarri apirilaren 12an udaletxeko HAZ eta Las Carrerasko HAON eta apirilaren 13an Gallartako eta Las Carrerasko Gazteguneeetan. Pertsona bakoitzak gehienez 5 sarrera eskuratu ahal izango ditu.



## APIRILAK 19, OSTEGUNA

**10:30 Bertso Topaketa** ikastetxe guztien artean Bizkaiko Bertsozale Elkartearen laguntzarekin Askartza Isusi ikastetxeko gimnasioan.

## APIRILAK 20, OSTIRALA

**17:30** Ume guztiek parte hartu ahaliko dute **KULKIren Artzainen Kirol parkean** Sanfuentesko frontoian. Probatu nahi dituzu zure trebetasunak?

**19:30 Antton Valverderen errezital berezia** Kultur Etxeko Areto Nagusian. Ez galdu aukera euskal kulturaz eta tradizioaz gozatzeko.

**22:00 Afari magikoa** Angulo tabernan, Axola Euskara elkarteak antolatuta. Leku mugatuak daude, beraz, gorde zurea ahalik eta lasterren 946369447 telefonora deituz.

## APIRILAK 21, LARUNBATA

**10:00** Berbalagun programak antolatutako **oinarrizko orientazio arauen ikastaroa** Zugaztietan edonorentzat.

**18:00 BASO LILURAGARRIA** heziketa proiektua Eusko Gudariak plazan: tailerrak, ekimen ludikoak eta amaitzeko ikuskizun musikala. Galduko duzu?

**20:00 - 22:00 Kantupoteoa** egingo dugu Eusko Gudariak plazan giro apartan. Kantutegia banatuko diegu animatzen direnei.

## APIRILAK 22, IGANDEA

**12:00 Euskaraldiaren bizi-martxa** prest! Kamiseta opari eramango duzu ibilbidean parte hartzen baduzu: Institutua-Sanfuentes-Los Castaños-Gallarta. Abanto AEK Euskaltegiak antolatua.



2018  
PROGRAMA EUSKAL ASTEA



Euskal Astean Euskal Herriko Meataritzza museoa egiten diren euskarazko bisitaldiak doan izango dira. Aprobetxatu aukera eta ezagutu gure historia!